

V. Lea Artibai Klasikoan parte hartzeko araudi hau irakurri eta konpromizu hauek onartu egin behar dira.

- 1.- Kuota 30€ izango da Internet-en bidez eginez. Federatu gabeak edo beste kirol baten federatuak 35€ ordainduko dute. Antolakuntzak ez du dirurik itzuliko frogara etortzen ez direnei. Dortsala norberarena da eta besterenezina
- 2.- Izenematea gehienez 300 partaiderekin itxiko da. <https://www.kirolprobak.com/eume.php/Buscar> orrian, eta tokirik geratu ezker irteeran bertan egunean 07:45 arte, federatuak 40€ eta beste kirol baten federatuak edo ez federatuak 45€ ordainduta.
- 3.-Lehiarik gabeko proba zikloturista da; beraz, ez da lehiaketa.
- 4.-Lea-Artibaiko produktuen zozketa egingo da dortsalen zenbakia erabiliz. Froga bukatzerakoan aurkeztu zuen tiketa eta dortsala ea zehozter tokatu zaizuen.
- 3.- Parte-hartzaile guztiak Ertzaintza eta antolatzaileen aginduak jarraitu eta Trafikoko Arauak betetzera behartuta daude.
- 4.- Antolatzaileak eskubidea izango du frogatik kanporatzeko araudi hau betetzen ez duena, baita ere, antolatzailearen esanak betetzen ez dituen parte-hartzailea.
- 5.- Antolatzaileak laguntza mekanikoa ziurtatuko du ibilbidean. Matxura konponketaren eskulana dohainik izango da baina ordezkoiak ordaindu egin beharko ditu txirrindulariak.
- 6.- Frogaren segurtasunean laguntzeko, ordutegi baten barruan ibiltzea funtsezkoa da, horretarako, gutxienezko batzbestekoa 23,5km/orduko eta gehienezkoa 30 km/orduko izango dira. Horrela ibilbide laburretik ezin izango da ibilbide luzera pasatu 11:37 etatik aurrera, anoguneetan gelditu egin behar da, eta martxa luzearen amaiera 14etan izango da gehienez.

Konpromizuzak.

- 1.- Araudia ezagutzen dut eta oso-osorik onartzen dut.
- 2.- Nire parte hartzeak eraginda, zirkulazio arazo zein kirol istripua bada, erantzukizunetik salbuesten ditut antolatzaile txirrindulari elkarteak eta baita antolatzaileekin lotutako pertsona fisiko edo juridiko guztiak.
- 3.- Nire parte hartzeak eraginda, osasunari dagokionean, edozein kalte gertatuta ere, aurrez aipatutakoei ez diet erantzukizunik eskatuko; onartzen dut proba honek eskatzen duen ahalegin fisikoak osasunari arriskuren bat ekar liezaiokeela.
- 4.- Nire parte hartzeak eraginda, norberaren gauzaren bat galdu, izorratuko balitz, edo lapurreta, galtzea edo bestelakoren bat gertatuta, ez diet aurrez aipatutakoei konturik eskatuko, ezta errurik egotziko ere.
- 5.- Jakitun naizela aitortzen dut: Badira zati eta jaitziera arriskutsuak: horietan arretaz jokatuko dut eta antolatzaileek nire mesedetan emandako jarraibideei kasu egingo diet. Probaren Medikuz Zerbitzuei baimena ematen diet beharrezkoa litzatekeen edozein sendatze lan egiteko, eskatzeko egoeran egon edo ez; horrez gain, proba bertan behera utziko dut, medikuz zerbitzukoek nire osasunerako onena dela irizten badiote. Beti kaskoa jantzita izango dut; bestela, dortsala kendu eta probatik kanporatuko naute.
- 6.-. Edozein arazo tarteko, aurreikusitako ordutik kanpo banabil, proba utziko dut.
- 7.- Kideak errespetatuko ditut eta ingurua ere bai. Ez dut zaborrik botako ibilbidean zehar.
- 8.-Proba egunean, antolatzaileek hartuko lituzketen erabaki eta aldaketak onartzen ditut. Justifikatutako arrazoiak tarteko, gerta liteke , gainera, ibilbidea aldatu beharra izatea, edo/eta proba bertan behera uztea, eguraldia edo beste arrazoi batzuegatik.
- 9.- Gure araudiak ez ezik, kirol proba hau indarrean dagoen Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren Araudi Teknikoak arautzen du.
- 10.-Errepideak beste ibilgailuentzako zabalik egongo dira. Trafiko arauak bete behar dira. Ertzaintzak eta bidegurutzeak zaintzen egongo diren laguntzaileak daukate errepidean segurtasuna bermatzeko agintea.
- 12.- DBLO (Datuen Babesari buruzko Lege Organikoa), jakinarazten dizuegu zuen datu pertsonalak antolatzaileen esku dagoen datu basean jasoko direla fitxategi batean, txirrindulari martxak tarteko harremanetan izateko asmoarekin. Dena dela, gordetzea nahi ez baduzu, mxtxirrindulari@gmail.com postan jakinarazi beharko duzue eta baja berretsi. -
13. **18 urte baino gutxiagoko** parte hartzaile orok hurrengo hau bete beharko du eta mxtxirrindulari@gmail.com helbidera bidali edo bertan egunean irteeran aurkeztu:

Nik NAN duenak, ama / aita / tutore bezala, neure erantzukizunpean, baimena ematen diot nire seme/alaba/lagun-ri, jaiotze-data duenari, 2023ko Irailaren 24ean egingo den **V.Lea Artibai Klasikoan** parte hartzeko. Horrekin batera, martxaren arauak eta baldintzak onartzen ditut eta aitortzen dut egoera fisiko egokia duela horrelako jarduerara fisikoa burutzeko. Beraz, antolatzaileak, laguntzaileak eta boluntarioak, euren lanei dagokienean, edozein erantzukizunetik salbuesten ditut.

Izen-Abizenak _____ Sinadura: _____

